

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK BOMBEROS FORALES DE ÁLAVA

**1/2016 Presidentetza Ebazpena, ekainaren 15ekoa, onartzen duena Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lanpostu zerrendako segurtasun eta osasun koordinatzailearen lanpostua (kodea: 1104.001) izendapen askearen bidez betetzeko deialdia**

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lanpostuen zerrendan segurtasun eta osasun koordinatzailearen lanpostua (kodea: 1104 001) ageri da, baina hutsik dago.

6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 46.1 artikuluan xedatzen du funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak lanpostu zerrendetan ezarrita dagoenaren arabera beteko direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren indarreko lanpostu zerrendak xedatzen du aipatutako lanpostua euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioek bete behar dutela lehiaketaren bidez.

Horrenbestez, eta nire eskumeneko ahalmenak egikaritzuz, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluari entzun ondoren, hau

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren indarreko lanpostuen zerrendako segurtasun eta osasun koordinatzailearen lanpostua (1104.001 kodea) lehiaketa sistemaren bidez betetzeko deialdiari.

Bigarrena. Onartzea ebazpen honekin batera dauden deialdiaren oinarriak.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak —azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan xedatutakoarekin loturik— 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Gasteiz, 2016ko irailaren 15a

*Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren Lehendakaria*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

**Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren lanpostu zerrendako segurtasun eta osasun koordinatzailearen lanpostua (1104.001 kodea) berriazko lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren oinarriak**

**LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdi honen xedea da berriazko lehiaketa sistemaren bidez Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko segurtasun eta osasun koordinatzailearen lanpostua (1104.001 kodea) betetzea.

**BIGARRENA. LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA ETA LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK.**

A. Lanpostuaren deskribapena.

Sailkapen taldea: C1

Destino-osagarriaren maila: 22

Berriazko osagarria: 32.122,92 euro

Lantoki herria: Langraiz Oka

Dedikazioa: eskusiboa

Ordu prestasuna: 150 ordu

Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe.

B. Lanpostuaren eginkizunak

Deitutako postuak deialdi honen I. eranskinean zehaztutako eginkizunak dauzka esleituta.

**HIRUGARRENA. BETEKIZUNAK**

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako:

1. Euskal herri administrazioetako edozeinetan karrerako funtzionarioa izatea.

2. Administrazio Bereziko eskalakoa izatea, klasea Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzua, azpieskala operatiboa, kategoria Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko sarjentua edo ofizialordea, edo beste edozein administrazio publikotako pareko kidego, eskala eta kategorietakoa.

3. Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan behin betiko destinorik lortu ez izana, lehiaketaren, barne sustapenaren edo kanpoko hautaketaren bidez, berdin diolarik zein administrazioetatik datorren izangaia eta zein kidego, eskala eta kategoriatatik parte hartzen duen.

4. Ez egotea eginkizunak irmo eten izanaren administrazio egoeran.

5. Ez egotea borondatezko eszedentziako administrazio egoeran (interes partikularragatik edo familia kontuengatik), salbu eta egoera horretan egon bada zerbitzu aktibora itzuli ahal izateko gutxienez eskatzen diren bi urteetan, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako.

6. B motako gidabaimena izatea.

**LAUGARRENA. KOMUNIKAZIOAK ETA JAKINARAZPENAK.**

Prozedura honetatik datozen komunikazioak eta jakinarazpenak Arabako Foru Aldundiaren iragarki taulan eta ARABA. EUS web orriko Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuz egingo dira.

**BOSGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKAERA**

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko administrazio kontseiluaren lehendakariari bidaliko zaizkio eta Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behea, PK: 01001 Vitoria-Gasteiz), eta Herri

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikulua aipatzen dituen bulegoetatik edozeinetan aurkeztuko dira, deialdi hau BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 15 egun balioduneko epean.

Eskaerarekin batera hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Deialdi honen hirugarren oinarrian eskatzen diren betekizunak betetzearen frogagiriak.

Jatorri administrazioiko organo eskudunak egindako egiaztagiriaren bidez egiaztatuko da betetzen direla hirugarren oinarri horretako 1, 2, 3, 4 eta 5 idatz zatietan jasoriko betekizunak. Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko funtzionarioak diren izangaiek ez dituzte aurkeztu behar erakunde autonomoko artxiboetan dauden datuen egiaztagiriak.

b) Euskararen hizkuntza eskakizuna frogatzeko probak egiteko eskaera, beharrezkoa balitz.

c) Deialdiaren berriazko merituen fasean aurreikusitako memoria.

d) Alegatzen diren meritu orokorren zerrenda eta haien frogagiriak. Merituak baloratzeko erreferentziako data deialdia BOEn argitaratzen den eguna izango da, eta ez da baloratzeko eskaerak aurkezteko epean frogatzen ez den meriturik, haietan aipatu arren, euskararen ezagutza baloratzeko berriaz xedatutakoa kaltetu gabe.

#### SEIGARRENA. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDA.

Eskaerak aurkezteko epe amaitutakoan, erakunde autonomoko administrazio kontseiluko lehendakariak deialdian onartuen eta baztertuen zerrenda argitaratuko du Arabako Foru Aldundiaren iragarki taulan eta araba.eus web orriko Enplegu Publikoaren Atarian, eta hiru egun balioduneko epea zabalduko da argitaratzen den egunetik erreklamazioak egiteko. Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

#### ZAZPIGARRENA. BALORAZIO BATZORDEA.

Meritu orokorrak nahiz berriazkoak balorazio batzorde batek baloratzeko ditu. Batzordea erakunde autonomoko administrazio kontseiluko lehendakariak izendatuko du eta batzordeburu bat, kide bi eta idazkari bat izango ditu. Hitza eta botoa izango dituzte denek. Batzordeburuak kalitatezko botoa izango du berdinketa gertatuz gero.

Ahalegina egingo da gutxienez balorazio batzordeko kideen erdiek lehenago deitutako postuko funtzioak beteta izateko edo funtzio arlo horretako ezagutzak izateko. Halaber, batzordeak adituak izenda ditzake edonoiz. Aditu horiek aholkulari jardungo dute, hitza izanda baina botorik gabe, euren espezialitateari dagozkion arloetan.

Kasuan kasu, hizkuntza eskakizuna frogatzeko probak egiteko IVAPen ordezkari bat hartuko da.

Hautatze prozesuko edozein unetan, balorazio batzordeak jakingo balu hautagairen batek ez duela betetzen deialdi honetan eskatzen den betekizunen bat, interesdunari entzun ondoren, organo eskudunari hura baztertzea proposatu beharko dio.

Balorazio batzordeak alegatutako meritu orokorren balorazioari eragiten dion jatorrizko dokumentazioa edo balorazioa erabakitzeke beharrezkotzat jotzen duen edozein argibide eskatu ahal du hautatze prozesuko edozein unetan.

#### ZORTZIGARRENA. LEHIAKETAREN GARAPENA.

Deialdiak fase hauek ditu: A) berriazko merituen fasea eta B) meritu orokorren fasea.

A. Berriazko merituak

Proba horretan hautagaiek prozedura honetan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharko duten memoriaren defentsa egin beharko da.

Memoriak 30 folio izango ditu gutxienez eta bertan parke nagusi bat, eskualdeko zenbait parke eta administrazio arlo bat dituen Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzu batean lan arriskuan prebenitzeko sistema bat nola ezarri, mantendu eta hobetu jaso beharko da. Halaber, memoria horretan prozesuan espero diren emaitzak azaldu beharko dira.

Memoria balorazio batzordearen aurrean eta, kasuan kasu, izendatutako aholkularien aurrean defendatu beharko da, eta hautagaiak hari buruz egiten zaizkion galderei eta/edo argibideei erantzun beharko die. Emandako erantzunen eta kontzeptuen ezagutza, argitasuna eta koherentzia baloratuko dira.

Fase horretan 13 puntu lor daitezke gehienez eta gutxienez 6,50 puntu lortu behar dira.

Gutxienerako puntuazio hori lortzen ez bada hautagaia hautatze prozesutik baztertuta geratuko da eta, ondorioz, ez dira baloratuko alegatutako meritu orokorrak.

Memoriaren defentsa egiteko tokia eta data onartutako hautagaien behin betiko zerrendan zehaztuko dira.

#### B. Meritu orokorrak

Fase honetan, gehienez ere 13 puntu lortu ahal izango dira. Balorazioa honela egingo da

##### 1. Egindako lanaren balorazioa.

Lehiatzaile bakoitza aritu izan den lanpostuen eduki teknikoaren (egitekoak eta zereginak) eta deitutakoaren arteko antzekotasuna baloratuko da.

Gehienez ere, 4,25 puntu lortu ahal izango dira.

a. 0,05 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 4,25 puntu, bete beharreko zeregin eta eginkizunak kontuan hartuta, lehiatzen den lanpostuaren eduki tekniko bereko lanpostuan egindako lanagatik.

b. 0,025 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 3 puntu, lehiatzen den lanpostuaren eduki teknikoa eta lanean egondako lanpostuarena antzekoa denean.

c. 0,010 puntu hilabete oso bakoitzeko, gehienez 1,5 puntu, titulazio talde berberari dagozkion lanpostuetan egindako lanagatik.

Aurreko b) eta c) idatz zatietako emaitzak batuta, gehienez ere, 3 puntu lortu ahalko dira.

##### 2. Antzintasuna.

Kontuan hartuko dira administrazio publikoei emandako zerbitzuak jatorrizko administrazio publikoan onartuta badaude. Antzintasun hori jatorrizko administrazio organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez frogatu behar da. Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko funtzionarioak diren izangaiek ez dituzte aurkeztu behar Erakunde Autonomoak onartuta daukaten antzintasunaren egiaztagiriak.

3,5 puntu lor daitezke gehienez, hain zuzen ere, 0,02 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko.

##### 3. Norberaren gradu finkatuaren balorazioa

Eskatzen den postuari dagokion destino-osagarriaren maila bereko edo goragoko gradu finkatua 1,5 puntutan baloratuko da.

Hautagaiaren gradu finkatua jatorrizko administrazio organo eskudunak emandako egiaztagiriaren bidez frogatu beharko da. Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko funtzionarioak diren izangaiek ez dituzte aurkeztu behar Erakunde Autonomoak onartutako graduaren egiaztagiriak.

#### 4. Titulu akademikoak

Lehiatzen den lanpostua lortzeko beharrezkoak direnez bestelako ikasketa titulu ofizialak balioetsiko dira, lanpostu horren eginkizun arloarekin duten lotura kontuan hartuta, gehienez 2 punturaino, ondorengo baremoaren arabera:

- Doktore titulua: 1,50 puntu.
- Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo baliokidea: 1,25 puntu.
- Ingeniaritza teknikoa, unibertsitateko diplomatura, Arkitektura teknikoa, hirugarren mailako Lanbide Heziketa, edo baliokidea: Puntu bat.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko bestelako tituluak, 300 ordu edo gehiagokoak: 0,75 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateen berezko bestelako tituluak, 200 ordu edo gehiagokoak: 0,50 puntu.
- Bigarren gradu lanbide heziketa edo baliokidea: 0,50 puntu.
- Lehen gradu lanbide heziketa edo baliokidea: 0,25 puntu.

Ez dira balioetsiko lanposturako derrigorrezkoa den titulua lortzeko beharrezkoak izan diren titulazio apalagoak, ezta merezimendu gisa balioetsi direnak ere.

#### 5. Prestakuntza ikastaroak.

Lortu nahi den lanpostuari dagozkion eginkizunei lotutako arloetan jasotako edo emandako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak baino ez dira baloratuko, baremo honen arabera:

0,25 puntu, gutxienez 100 orduko ikastaro bakoitzeko.

0,15 puntu, gutxienez 50 orduko ikastaro bakoitzeko.

Ziurtagirietan ordu kopurua zehaztu beharko da, bestela ez dira balioetsiko.

Ez dira balioetsiko errepikatutako ikastaroak, ez eta segurtasuneko oinarrikoak ere.

Ez dira baloratuko irakasgaiak, kredituak eta bukatu gabeko ikastaroak.

Atal honetan gehienez ere puntu 1 lortu ahal izango da.

#### 6. Hizkuntzak

Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen ezagutzako titulu ofizialak izatea baloratuko da, Euskal Autonomia Erkidegokoei dagozkienak izan ezik, eta gehienez 0,75 puntu lortu ahal da, taula honen arabera:

- B-2: 0,25 puntu
- C-1: 0,50 puntu
- C-2: 0,75 puntu

#### BEDERATZIGARRENA. EUSKARAREN EZAGUTZA.

Euskararen ezagutza meritu gisa baloratuko da, eskaintzen den postuaren hizkuntza eskakizunaren arabera (2. Hizkuntza eskakizuna), eta baremo honen arabera baloratuko da, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenean, xedatutakoaren arabera.

Egiatzatutako HE	Puntuazioa
1	1,3
2	1,8
3 eta 4	2,2

Euskararen hizkuntza eskakizunak IVAPen ziurtagiriaren bidez, nahiz ziurtagiri baliokideen bidez frogatu ahalko dira, baita, kasuan kasu, hizkuntza eskakizunak frogatzeko probak eginez ere.

Halaber, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren eta arestiko paragrafoan aurreikusi den hizkuntza eskakizunak frogatzeko probak egiteko egunaren arte lortutako ziurtagiriak edo hizkuntza eskakizunak ere onartuko dira.

#### HAMARGARRENA. BERDINKETA, LEHIAKETA OSOKO PUNTUAZIOAN.

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek baliatuko dira berdinketa apurtzeko:

A) Lehendabizi, merezimendu espezifikoen atalean lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan.

B) Berdinketak iraunez gero, lortutako puntuazioa hartuko da kontuan atal hauen ordenari jarraituz:

1. Egindako lanaren balioespena
2. Titulazio akademikoak.
3. Prestakuntza ikastaroak.
4. Hizkuntzak.

C) Berdinketak iraunez gero eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4) artikulua aplikatuz, emakumea lehenetsiko da.

D) Oraindik ere berdinketak jarraitzen badu, administrazio publikoetan egindako zerbitzuengatik antzintasun gehien egiaztatzen duenaren alde egingo da.

E) Oraindik ere berdinketa apurtzeko irizpide gehiagoren beharrik badago, balorazio batzordeak finkatuko lituzke, merezimenduaren printzipioari jarraikiz.

#### HAMAİKAGARRENA. EMAITZAK ARGITARATZEA

Berriazko merituen eta meritu orokorren fasearen behin-behineko balorazioa Arabako Foru Aldundiaren iragarki-taulan eta araba.eus web orriko Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik 10 egun balioduneko epea emango da balorazio batzordeari erreklamazioak aurkezteko.

Egindako erreklamazioak, kasuan kasu, ebatzita, behin betiko balorazioa modu berean argitaratuko da.

#### HAMABIGARRENA. POSTUA ESLEITZEA ETA HARTAZ JABETZEA

Balorazio batzordeak postuaren esleipen proposamena igorriko dio Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko administrazio kontseiluaren lehendakariari. Deialdiaren ebazpena ALHAOn argitaratuko da.

Funtzionarioak jatorri lanpostua uzteko eskaera deialdi honen ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan egingo du, eta lanpostu hori utzi eta hurrengo egunean jabetuko da lanpostuaz.

Lehiaketaren ebazpenak badakar zerbitzu aktibora itzultzea, lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunetan jabetu beharko da funtzionarioa lanpostuaz.

Baimen, lizentzia, opor edo funtzionarioa dagoen beste edozein egoera bukatzen denera arte, hau da, nahiz eta funtzionarioa zerbitzu aktiboan egon bere zerbitzuak benetan ematea eragozten duen edozein egoera bukatzen denera arte atzeratuko da funtzionarioa lanpostuaz jabetzea.

Funtzionarioa ez bada lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetzen hartarako adierazitako epean, titulartasuna galduko du.

Lehiaketari buruzko ebazpenak berekin badakar funtzionarioak etxebizitzaz aldatu beharra, behar horrek borondatezko izaera izango du eta funtzionarioak ez du kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

#### HAMAHIRUGARRENA. AURKARATZEAK

Oinarri hauek, deialdia bera eta horretatik eta balorazio batzordearen jardunetatik sortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta prozedura erkidearenak, ezarritako kasu eta moduetan.

### I. Eranskina

#### SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINATZAILE POSTUAREN EGINKIZUNAK

- Egin esku-hartze txostenak
- Zuzendu istripuetan esku hartzeko talde operatiboak
- Bete agintzeko eginkizunak esleitutako langileengan
- Gauzatu prebentzio jarduerak
- Koordinatu maniobrak egitea
- Gidatu/Mantendu esleitutako ibilgailua
- Aholkatu eta informatu bere jarduerari dagozkion arloetan
- Erantzun kontsultei
- Lagundu zerbitzuko langileei
- Lagundu administrazio prozesuetan
- Lagundu lan prozedurak diseinatzen, egikaritzen eta ebaluatzen
- Hauteman esku hartzeko, zuzentzeko eta konpontzeko beharrianak.
- Bete nagusiek emandako aginduak delituak egitea ez badakarte
- Koordinatu hierarkikoki ezarritako neurriak abiarazteko ardura duten agenteekin
- Ardura hartu instalazioak, ekipamenduak eta materiala aldian-aldian mantentzeko
- Kudeatu/Kontrolatu lanak egiteko erabilitako materiala
- Ardura hartu lan arriskuen prebentzioaren arloan arauak eta gidalerroak betetzeko
- Kudeatu esleitutako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak
- Prestatu esleitutako langileak
- Ardura hartu bere postuari atxikitako administrazio izapideak egiteko
- Gainbegiratu bere ardurapeko langileek egindako lana
- Lagundu bere jarduerari dagozkion planak, proiektuak, programak, ikastaroak, jarduerak eta/edo kanpainak (sentsibilizaziokoak) programatzen, ezartzen eta gauzatzen
- Jakinarazi gorabeherak eta kalteak
- Gainbegiratu instalazioak, ekipamenduak, materialak eta dokumentazioa
- Ardura hartu laneko segurtasun eta osasuneko prozedurak diseinatu, egikaritu eta ebaluatzeko
- Antolatu eta zuzendu erakunde autonomoko laneko segurtasun eta higienarako baliabideak

Diagnostikatu eta ebaluatu erakunde autonomoko segurtasun eta higiene maila eta lan baldintzak

Bultzatu laneko segurtasun eta higiene politika eta haren etengabeko hobekuntza

Gainbegiratu aplikatu behar diren erregelamenduzko kodeak eta arauak eraginkortasunez betetzen direla

Identifikatu eta ebaluatu lan istripuak eta laneko gaixotasunak eragiten dituzten baldintzak

Bete lan arriskuen prebentzioaren arloko arauak eta gidalerroak